# OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2013IPLE0003
**Eguna:** 2013-03-21
**Ordua:** 19:00-20-10
**Tokia:** Areto nagusia

## Bertaratuak

| | |
|---|---|
| - Andoni Gartzia Arruabarrena | BILDU |
| - Maite Olatziregi Esparza | BILDU |
| - Agin Rezola Laburu | BILDU |
| - Ione Olatziregi Mendiorotz | BILDU |
| - Berta Arozena Bergara | BILDU |
| - Isabel Otero Glorie | BILDU |
| - Raul Redín Hernández | BILDU |
| - Zorione Etxezarraga Ortuondo | EAJ-PNV |
| - Ramón Aranzasti Loyarte | EAJ-PNV |
| - Bixente Arrizabalaga Bengoetxea | Hamaikabat |
| - Imanol Lizarralde Marín * | Hamaikabat |

## Bertaratu ez direnak

-

## Idazkaria

- Xabin Olaizola Lasa

## Aztergaiak

| EGUNEKO AZTERGAIAK | Zk / Nº | ORDEN DEL DIA |
|---|---|---|
| **2013ko otsailaren 27ko akta onartzea** | **1** | Aprobación del acta de 27 de febrero de 2013 |
| **2013ko Aurrekontua – Alegazioak ebaztea eta behin betirako onartzea** | **2** | Presupuesto 2013 – Resolución de alegaciones y aprobación definitiva |
| **Garbitania sozietatean partaidetza** | **3** | Participación en la sociedad Garbitania |
| **Etxe hutsak – Salbuespenak ezartzeko irizpideak onartzea** | **4** | Viviendas vacías – Aprobación de criterios para la aplicación de exenciones |

| | | |
|---|---|---|
| **"Umako izeneko" (9.eremuko hirigintza hitzarmena) orubearen lagapena onartzea** | **5** | Aceptación de la cesión del solar "Antiguo Umako" (Convenio urbanístico área 9) |
| **Udal ordenantza: kale-plazetan eta eserlekuak erabiltzeko. Behin betiko onarpena** | **6** | Ordenanza municipal reguladora de instalación de mesitas,sillas,. Aprobación definitiva |
| **Biribilgune berriaren kitapena onartzea** | **7** | Aprobación de la liquidación de la nueva rotonda |

## Esan-eginak eta erabakiak

Aldez aurretik, alkateak honako presazko deklarazio hau bozkatzeko eskatu dio Osoko Bilkurari: frankismoak eragindako genozidioagatik Argentinan izapidetzen ari den 4591/10 kereilari dagokionez Goldatu Elkarteak aurkeztutako mozioa aintzat hartzea. Presazkoa da kereila izapidetzen ari den epaitegiari horren inguruko erabaki bat bidali behar zaiolako.

Previamente la alcaldía somete al Pleno la declaración de urgencia para incorporar la moción presentada por Goldatu Elkartea en relación a la querella 4591/10 que se está tramitando en Argentina por genocidio cometido por el franquismo. La urgencia se basa en la necesidad de remitir un acuerdo en tal sentido al juzgado que está tramitando la querella.

Bixente Arrizabalagak zera adierazi du, ez dutela begi onez ikusten mozioak azken orduan sartzea, hori behin eta berriz errepikatzen ari dela eta nolabait moztu beharko litzatekeela, eta horregatik presazko deklarazioaren aurka bozkatuko dutela.

Interviene el concejal Bixente Arrizabalaga quien señala que no están de acuerdo con estas prácticas de meter a última hora mociones, se está repitiendo eso y se debe cortar y nosotros vamos a votar en contra de la declaración de urgencia.

Presazko deklarazioa bozkatu da, eta onartu egin da EHBILDUren aldeko 7 botorekin, EAJ/PNVren 2 abstentziorekin eta H1en kontrako boto batekin.

Sometida a votación la declaración de urgencia es aprobada con 7 votos a favor de EHBildu, 2 abstenciones de EAJ/PNV, y 1 voto en contra de H1.

1. **<u>2013ko otsailaren 27ko akta onartzea</u>**

1. **<u>Aprobación del acta de 27 de febrero de 2.013</u>**

Zorione Etxezarraga zinegotziak zera eskatu du, 3. orrialdeko lehen paragrafoari

La concejal Zorione Etxezarraga solicita que se añada al primer párrafo de la

honako hau eranstea: “eta horregatik ez gaude ados”.
Ñabardura hori erantsi da, eta jarraian akta aho batez onartu da.

página 3: “eta horregatik ez gaude ados”.
Con la matización incorporada se aprueba el acta por unanimidad.

**2. 2013ko Aurrekontua – Alegazioak ebaztea eta behin betirako onartzea**

**2. Presupuesto 2013 – Resolución de alegaciones y aprobación definitiva**

2013ko martxoaren 14an Ogasun Batzordeak emandako irizpena aurkeztu du alkateak:

El alcalde presenta el dictamen de la Comisión de Hacienda de fecha 14 de marzo de 2013:

hasierako onespenari aurkeztutako alegazioak aztertu ostean, EAJ/PNV udal-taldeak aurkeztutako alegazioak ezetsi dira, baita Astigarraga Garbiak aurkeztutakoa ere; aldiz, EH-Bildu udal-taldeak aurkeztutako alegazioa oso-osorik onartu da. Azken alegazio horretan, aurrekontuaren hasierako zenbatekoa 98.300 €-an handitzea onartzen da.

“Vistas las alegaciones formuladas a la aprobación inicial del Presupuesto General 2013, y siendo desestimadas las formuladas por el grupo municipal EAJ/PNV, así como la presentada por Astigarraga Garbia, y aceptada en su integridad la formulada por el grupo municipal EHBildu, por el que se acepta incrementar el importe inicial del presupuesto en 98.300 €.

Kontu-hartzaileak Aurrekontu Orokorra behin betiko onestearen aldeko txostena egin zuen; aurrekontua 5.997.309 €-koa da eta diru-sarreretan eta gastuetan orekatua. Hori ikusita, batzordekideek, EH-Bildu udal-taldearen aldeko botoekin, eta H1 eta EAJ/PNV udal-taldeen kontrako botoekin, honako erabaki hauek hartzeko aukera Osoko Bilkuran aurkeztea adostu zuten:

Considerando el informe favorable del Interventor para la aprobación definitiva del Presupuesto General que asciende a 5.997.309 €, equilibrada en ingresos y gastos, los miembros de la Comisión con los votos a favor del grupo municipal EHBildu y voto en contra de los grupos EAJ/PNV y H1, acuerdan elevar al Pleno la adopción de los siguientes acuerdos:

1- EAJ/PNVk eta Astigarraga Garbiak aurkeztutako alegazioak ezestea.

1º- Desestimar la alegaciones formuladas por EAJ/PNV y Astigarraga Garbia.

2- EH-Bilduk aurkeztutako alegazioak baiestea; alegazio horien bitartez, aurrekontua 98.300 €-an handitzen da, bai diru-sarreretan, bai gastuetan.

2º- Estimar las alegaciones formuladas por EHBildu, por el que se incrementa el presupuesto en 98.300 €, tanto en ingresos como en gastos.

3- 2013ko Aurrekontu Orokorra (5.997.309 €) behin betiko onartzea, diru-sarreretan eta gastuetan orekatua izanik.

3º- Proceder a la aprobación definitiva del Presupuesto General 2013 por importe de 5.997.309 €, equilibrado en ingresos y gastos.

4- 21/2003 Foru Arauaren 15.3 artikuluan

4º- Conforme a lo dispuesto en el art.

xedatutakoari jarraiki, 2013ko Aurrekontu Orokorra GAOn argitaratzea.

15.3 de la N.F. 21/2003, proceder a la publicación del Presupuesto General 2013 en el BOG.”

Jarraian, Zorione Etxezarraga zinegotziak zera adierazi du, alderdi formalari dagokionez, aurrekontua hasiera batean onartzean ez zela ezer planteatu Garbitaniari dagokionez, eta orain, berriz, jendaurreko informazio-prozesuan, alegazioa sartu dela Garbitaniaren partizipazioak erosteko 99.000 € eransteko. Beraiek horrekin ez daudela ados adierazi du, eta garrantzizko kontua dela iruditzen zaienez, aurrekontuaren onarpena berriz ere jendaurreko informazioaren eraginpean jartzeko eskatu nahi dutela.

A continuación interviene la concejal Zorione Etxezarraga quien señala que desde el aspecto formal en la aprobación inicial del presupuesto no se planteó nada en relación a Garbitania y ahora en el proceso de información pública se incorpora la alegación para incluir 99000€, para comprar las participaciones de Garbitania, con lo que no estamos de acuerdo y por su importancia solicitamos que se someta nuevamente a información pública la aprobación del presupuesto.

Kontu-hartzaileak zera adierazi du, onartzeko prozedura bat datorrela 21/2003 Foru Arauaren 14.-17. artikuluetan ezarritakoarekin, “erakundeei eska dakizkiekeen betebeharrak betetzeko beharrezko kreditua alde batera uztea” izanik alegazioa aurkezteko arrazoietako bat. Ildo horretan, zera gaineratu du, hondakinak biltzeko zerbitzua kudeatzeko modu berriak, zerbitzuari erantzuteko beharrezko kredituak eranstea eskatzen duela.

El interventor informa que el procedimiento de aprobación se adecúa a lo dispuesto en los art.14-17 de la Norma Foral 21/2003, siendo causa de alegación, entre otras, “ el omitir el crédito necesario para el cumplimiento de obligaciones exigibles.” La nueva forma de gestión del servicio de recogida de residuos exige la incorporación de los créditos precisos para atender el servicio.

Gogora ekarri duenez, aurrekontuaren hasierako onarpenean abstenitu egin ziren, baina orain, Garbitania eranstearekin batera, 2013ko aurrekontua onartzearen aurka bozkatuko dute.

Recuerda que en la aprobación inicial del presupuesto se abstuvieron, pero ahora con la incorporación de Garbitania van a votar en contra de la aprobación del presupuesto 2013

Bixente Arrizabalaga zinegotziak zera adierazi du, aurrekontua onartzearen aurka dagoela eztabaidaren hasierako onarpenean adierazi zuen arrazoiarengatik, hau da, kontra bozkatuko du, besteak beste, Garbitanian integratzearekin eta Garbitaniaren partizipazioak erostearekin ados ez dagoelako. Inbertsioei dagokienez, ikastolako inbertsioa baino ez da bildu,

Interviene el concejal Bixente Arrizabalaga quien señala que su postura contraria a la aprobación del presupuesto se fundamenta en lo que ya manifestó en el debate en su aprobación inicial, e indica vota en contra, entre otras, por que no está de acuerdo con la integración en Garbitania y la compra de participaciones en la misma, en inversiones sólo se recoge la inversión de la Ikastola y si bien

eta, horren aurka ez badaude ere, beste inbertsio batzuk ez dituztela aintzat hartu adierazi du, Anuska landa-eremuari buruzkoa adibidez, inbertsio gehienak atez ateko sistemara bideratu direlarik.

no están en contra de ella observan que no se recogen otras inversiones como en la zona rural, Anusca, y se centra la mayoría de la inversión en el Puerta a Puerta.

Alkateak zera adierazi du, horrelako inbertsioak bilduta zeudela jada aurreko udalbatzaren aurrekontuetan, baina hala eta guztiz ere ez zirela gauzatu. Nolanahi ere, zera adierazi du, Bilduren asmoa dela 2013an gai horiei ere heltzea, eta, ildo horretan, zenbait aurrekontu-aldaketa proposatu nahi dituztela inbertsio horiek integratzeko.

Interviene el alcalde señalando que ese tipo de inversiones ya se contemplaban en presupuestos de la corporación anterior y no se hicieron, no obstante señala que la intención de Bildu es abordar también esos temas y a lo largo del 2013, desean proponer modificaciones presupuestarias para la integración de las mismas.

Zorione Etxezarraga zinegotziak zera argitu nahi izan du, aurrekontu hori ez dela beraiena, eta Garbitaniarako esleitutakoarekin ez daudela ados, baina horrekin ez dutela esan nahi aurrekontuak txarrak direnik.

La concejal Zorione Etxezarraga manifiesta que este presupuesto no es nuestro presupuesto, no estamos de acuerdo con lo consignado para Garbitania, pero no decimos que los presupuestos sean malos.

Irizpena bozkatu eta onartu egin da, EHBilduren aldeko 7 botorekin eta kontrako 3 botorekin (EAJ/PNV: 2, H1: 1).

Sometido a votación el dictamen se aprueba con 7 votos a favor de EHBildu,3 en contra 2 EAJ/PNV, 1H1.

## 3. Garbitania sozietatean partaidetza

## 3. Participación en la sociedad Garbitania

2013ko martxoaren 14an Ogasun Batzordeak emandako irizpena aurkeztu du alkateak:

El alcalde presenta el dictamen de la Comisión de Hacienda de fecha 14 de marzo de 2013:

Udalak Garbitania sozietatean parte hartzeko eskaera proposatu zuen alkateak eta, horretarako, 99.000 €-ko partaidetzak erostea proposatu zuen; eskaeraren arabera, sozietateak bildu beharko lituzke honako hauek:

a) hiri-hondakinak, honako hauek izan ezik: beira, hiri-hondakin toxikoak, pilak eta arropa.
b) Zur-bilketa.
c) Hiri-hondakinak eta antzekoak; horien tratamendua eta

Vista la propuesta del Alcalde solicitando la participación del Ayuntamiento en la sociedad Garbitania, proponiendo la compra de participaciones por importe de 99.000 €, solicitando que sea dicha sociedad la que realice la recogida de:

a) residuos urbanos, salvo la recogida de vidrio, residuos tóxicos urbanos, pilas y ropa.
b) Recogida de madera
c) Residuos urbanos y asimilables su tratamiento y valoración.

balioespena.

Idazkariak aldeko txostena egin zuen eta bilketa-zerbitzuaren kudeaketa Garbitania Zero Zabor sozietateari esleitzearekin eta partaidetzarekin loturiko alderdiak zehaztu zituen.

Batzordekideek, EH-Bilduko zinegotziek emandako aldeko botoekin, eta H1eko eta EAJ/PNVko zinegotziek emandako kontrako botoekin, honako erabaki hauek hartzeko aukera Osoko Bilkuran aurkeztea adostu zuten:

1- Garbitania Zero Zabor sozietatean 99.000 €-ko partaidetza erostea; horietatik 66.000 € kapital-zabalkuntzari dagozkio eta 33.000 € Oiartzungo Udalaren partaidetzei (33 partizipazio 519-551).

2- Garbitania Zero Zabor sozietateari esleitzea hiri-hondakinen bilketa-zerbitzua, honako hauek izan ezik: beira, etxeko hondakin arriskutsuak, pilak eta arropa.

3- Garbitaniaren Batzar Orokorrean Udal honek duen ordezkari Andoni Gartzia Arruabarrena alkatea izendatzea eta Administrazio Kontseiluko kide alkatea bera eta Maite Olatziregi zinegotzia izendatzea.

4.- Goian aipatutako erabakiak gauzatzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak sinatzeko baimena ematea alkateari.

Irizpena eztabaidatzen hasi aurretik, zenbait zinegotzik atez atekoari lotutako zenbait esleipen hartu dituzte hizpide, eta eskatutako horniduren esleipenari dagokionez alkateak dituen eskumenak argitu dira. Gogoratzekoa da 2 kontratazio-espediente izapidetu zirela prozedura negoziatuaren bitartez, eta gainerako lanak eta hornidurak zenbateko txikiko

Considerando el informe favorable emitido por el Secretario, por el que se concretan los aspectos relativos a la participación y encomienda de gestión de servicio de recogida a Garbitania Zero Zabor.

Los miembros de la Comisión con el voto favorable de EHBildu y votos en contra de EAJ/PNV y H1, acuerdan elevar al Pleno la adopción de los siguientes acuerdos:

1º- Proceder a la compra de 99.000 € de participación en Garbitania Zero Zabor; resultantes 66.000 € de la ampliación de capital y 33.000 € de las participaciones del Ayuntamiento de Oiartzun (33 participaciones (519-551).

2º- Encomendar a Garbitania Zero Zabor la prestación del servicio de recogida de residuos urbanos con la excepción de la recogida de vidrio, residuos domésticos peligrosos, pilas y ropa.

3º- Designar al alcalde, Andoni Gartzia Arruabarrena, como representante de este Ayuntamiento en la Junta General de Garbitania, designando además como miembros del Consejo de Administración al propio alcalde y a la concejal Maite Olatziregi.

4º- Autorizar al alcalde para la firma de cuantos documentos sean necesarios para materializar los acuerdos precitados

Previo al debate del dictamen se desarrollan distintas intervenciones en relación a distintas adjudicaciones vinculadas con el PaP, siendo aclaradas las competencias de alcaldía en materia de adjudicación de los suministros encargados. Se recuerda la tramitación de 2 expedientes de contratación a través de procedimiento negociado, siendo

prozeduraren bitartez izapidetu zirela, indarreko legerian ezarritakoari jarraiki.

tramitados el resto de trabajos y suministros a través del procedimiento menor cuantía previsto en la legislación vigente.

Zorione Etxezarraga zinegotziak zera adierazi du, badakitela alkateak 2 urte daramala hondakinak biltzeko zerbitzu berria ezarri nahian, gaur egun zerbitzua kudeatzeko ardura duen FCC enpresarekin hitz egin gabe, eta, denbora luzea igaro eta gero, Garbitaniak zerbitzuaren ardura hartzeko erabakia hartu duela alkateak. Ez dakitela zerbitzu hori zenbat kostatuko den, eta inork ez duela balioetsi zerbitzua nola emango den.

Interviene la concejal Zorione Etxezarraga quien manifiesta que conocemos que desde hace 2 años querías implantar el nuevo servicio de recogida de residuos y no se ha hablado con FCC la empresa que actualmente la gestiona, y pasado este largo período habeis decidido que sea Garbitania quien realice el servicio. No sabemos lo que va a costar ese servicio y no se ha valorado cómo se va a prestar el servicio.

Alkateak zera erantzun dio, FCC enpresarekin eta antzeko zerbitzuak eskaintzen dituzten beste zenbait enpresa pribaturekin bildu dela, eta balioespena egin ondoren egokiagoa iruditu zaiela kapital publikoko enpresa batek zerbitzuaren ardura hartzea, eta azkenean Garbitaniaren aldeko apustua egin dutela. Jarraian zera adierazi du, espedientean jasota dagoela idazkariak emandako aldeko txostena, eta horretan zera zehaztu dela, zerbitzu-prestazioa Garbitania Zero Zabor enpresaren bitartez egin litekeela, zerbitzua emateko mandatu gisa.

Contesta el alcalde señalando que la alcaldía ha venido manteniendo distintas reuniones con FCC y otras empresas privadas que prestan servicios similares y que tras una valoración ha entendidao más conveniente que sea una empresa de capital público la que preste el servicio, siendo la propuesta a favor de Garbitania. Indica que en el expediente está el informe favorable emitido por el Secretario en el que se concreta que la prestación de servicios pudiera realizarse a través de Garbitania Zero Zabor como encomienda de prestación del servicio.

Zorione Etxezarraga zinegotziak zera adierazi du, idazkariak emandako txostena eta mandatua betetzeko aukera zalantzan jartzen dituela. Idazkariak zera erantzun dio, emandako txostenaren arabera Garbitania Zero Zabor sozietateak bete egiten dituela jarritako baldintzak, eta beraz kudeaketa-mandatua bete daitekeela lizitazio publikora jo beharrik gabe.

La concejal Zorione Etxezarraga manifiesta algunas dudas en relación al informe emitido por el secretario y la posibilidad de realizar la encomienda, siendo contestadas por el secretario que conforme al informe emitido la sociedad Garbitania Zero Zabor cumple los requisitos que se establecen como medio y por tanto puede realizarse la encomienda de gestión haciendo innecesaria la licitación públilca.

Bixente Arrizabalaga zinegotziak zera adierazi du, hasiera-hasieratik bazekitela Garbitaniak bere gain hartuko zuela

Interviene el concejal Bixente Arrizabalaga señalando que desde el

bilketaren ardura. Ildo horretan zera adierazi du, emandako txostenari buruz zenbait kontsulta egin direla, eta, ñabardurak egiteko aukera badago ere, txostena aldekoa dela, eta haiek ez dutela ezer eransteko asmorik. Zotzak boteak direla esan daitekeela erantsi du, Garbitania kontratatu dutela eta dagoeneko esekigailuak jartzen ari direla, bildutako 2.000 sinadurei inolako kasurik egin gabe, borondate demokratiko eskasaren adierazgarri. Udalak ez duela inoiz hainbeste diru gastatu herria nabarmen kontra duen proiektu batean. Lanean jarraituko dutela, eta, datozen hauteskundeetan, atez atekoaren aurka dagoen alderdi bati emango diola botoa.

comienzo tenían claro que la recogida la iba a realizar Garbitania. Señala que han realizado consultas en relación al informe emitido y que pudieran hacerse matizaciones pero el informe es favorable y no vamos añadir nada más. Podemos decir que la suerte está hechada,habeis contratado a Garbitania, estais colocando los colgadores, y no habeis hecho ningún caso a las 2000 firmas recogidas, teneis muy poca voluntad democrática. En este ayuntamiento nunca se ha gastado tanto en un proyecto tan impopular. Seguiremos trabajando y en las próximas elecciones votaré a un partido que no apoye el puerta a puerta.

Irizpena bozkatu da, eta EHBilduren aldeko 7 botorekin eta kontrako 3 botorekin (2EAJ/PNV,1H1) onartu da.

Sometida a votación el dictamen es aprobado con 7 votos a favor EHBildu, y 3 votos en contra (2EAJ/PNV,1H1).

## 4. Etxe hutsak – Salbuespenak ezartzeko irizpideak onartzea

## 4. Viviendas vacías – Aprobación de criterios para la adjudicación de exenciones

Martxoaren 14ko Ogasun Batzordean, ondoren adierazten diren egoeretakoren batean dauden etxebizitza hutsei % 75eko gainkargua aplikatzetik salbuesteko irizpideak kontuan izateko kontu-hartzaileak egin zuen proposamena aztertu zen:

1.-Ondasun Higiezinen gaineko Zergan zerga-bonifikazioren bat duten etxebizitzak.

2.-Erroldatutako inor ez duten etxebizitzak, ofizialki onartutako mendetasun-egoeran dagoelako.

3.-Etxebizitzaren titularra hil denetik urtebete igaro ez denean.

Analizada en la Comisión de Hacienda de fecha 14 de marzo la propuesta del interventor de considerar criterios de exención en la aplicación del recargo del 75% a viviendas vacías que se encuentren en alguna de las siguientes situaciones:

1.-Las viviendas que gocen de algún tipo de bonificación tributaria en el impuesto del IBI.

2.-Viviendas sin persona empadronada por estar en situación de dependencia reconocida oficialmente.

3.-Cuando no haya transcurrido un año desde el fallecimiento del titular de la vivienda.

4.-Ekonomia-jardueretara destinatutako etxebizitzak, ezinbestekoa izanik Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda egotea.

4.-Viviendas destinadas a actividades económicas, siendo imprescindible el estar dado de alta en el IAE.

5.-Hirugarren adinerako egoitzetan erroldatuta dauden jabeak dituzten etxebizitzak, etxebizitza horiek Administrazioarekin ordainketarako afektatuta geratzen direnean.

5.-Viviendas cuya titularidad corresponda a personas empadronadas en residencias de tercera edad y cuyas viviendas queden afectas al pago con la Administración.

6.-Azken urtean gutxienez 9 hilabetez errentan emandako etxebizitzak.

6.-Viviendas arrendadas durante el último año un mínimo de 9 meses.

Zorione Etxezarraga zinegotziak zera adierazi du, kontra bozkatuko dutela, zerga-ordenantzak onartzean ez zutelako etxebizitza hutsen gainean % 75eko aplikazioa babestu.

La concejal Zorione Etxezarraga señala que van a votar en contra dado que ellos en la aprobación de las ordenanzas fiscales no apoyaron la aplicación del 75% sobre la vivienda vacía.

rizpena bozkatu da, eta onartu egin da EHBilduren aldeko 7 botorekin eta kontrako 3 botorekin (2EAJ/PNV,1H1).

Sometido a votación el dictamen es aprobado con 7 votos a favor EHBildu, y 3 votos en contra (2 EAJ/PNV,1 H1).

**5. Umako izeneko" (9.eremuko hirigintza hitzarmena) orubearen lagapena onartzea**

**5. Aceptación de la cesión del solar "Antiguo Umako" (Convenio urbanístico área 9)**

2013ko martxoaren 14an Ogasun Batzordeak emandako irizpena aurkeztu du alkateak:

El alcalde presenta el dictamen de la comisión de hacienda de fecha 14 de marzo de 2013:

"Promociones Gailur Alde, SL sustapen-enpresak Astigarragako Udalari, elkarren artean sinatutako Hirigintza Hitzarmenaren arabera, espazio publikorako lagatzen dion 750 m2-ko azalerako orubeari (5. zenbakiko Jabetzaren Erregistroa, 2199. liburukia, 90. liburua, 103. orria, 27. finka) (Umako zaharraren orubea) dagozkion eskrituren zirriborroa aztertu da.

Visto el borrador de escrituras correspondientes a la cesión del solar de superficie 750 m2 (Registro de la Propiedad nº5, tomo 2199, libro 90, folio 103, finca 27) (solar antiguo Umako), que la promotora Promociones Gailur Alde, S.L. cede al Ayuntamiento de Astigarraga para destinarlo a espacio público, conforme a lo establecido en el Convenio Urbanístico suscrito con ellos.

Zerga-ondorioetarako, orubearen balioespena 285.172,96 € da.

A efectos fiscales la valoración del solar se cuantifica en 285.172,96 €.

Batzordeko kideek honako hau erabaki dute aho batez:

Los miembros de la Comisión por unanimidad acuerdan :

1.- Lagapen hori onartzea, eta osoko bilkurara bidaltzea bertan onartzeko, lagapen hori gauzatzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak sinatzeko baimena emanez alkateari.

1.- Proceder a la aceptación de la cesión, y se eleva al pleno para su aprobación autorizando al alcalde a la firma de los documentos necesarios para materializar la precitada cesión.

2.- Lagapen horri udal-inbentarioan alta ematea.

2.- Dar de alta esta cesión en el inventario municipal

Bozketa egin da, eta irizpena aho batez onartu da.

Sometido a votación el dictamen es aprobado por unanimidad.

**6. Udal ordenantza: kale-plazetan eta eserlekuak erabiltzeko. Behin betiko onarpena**

**6. Ordenanza municipal reguladora de instalación de mesitas, sillas. Aprobación definitiva**

Obretako batzordearen irizpena aurkeztu du alkateak:

El alcalde presenta el dictamen de la comisión de obras:

2013ko martxoaren 18an,obrak eta zerbitzuetako batzordeak,beste gaien artean goian aipatutakoa aztertu ondoren, batzordeak osoko bilkurari honako akordio hau onartzea eskatzen dio:

Reunida la Comisión Informativa de Obras y Servicios el día 18 de marzo de 2013, y visto entre otros asuntos el arriba referenciado, la comisión decidió, elevar al Pleno la adopción del siguiente acuerdo:

-Ordenantza arautzaileari iradokizunak aurkeztu dizkiotenei jasotako aldaketen arabera eta batzordeko kideek eginiko proposamenaren arabera erantzuna ematea.
.- Behin- betiko onespena ematea bide publikoan terrazak eta mahaitxoak jartzeko udal ordenantza arautzaileari.

.- Testua bere osotasunean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu, eta Euskal Autonomia Erkidegoko administraziora kopia bidali.

- Contestar a las alegaciones presentadas a la ordenanza reguladora, de acuerdo a las modificaciones realizadas al documento, y considerando la propuesta de los miembros de la comisión.
- Aprobar definitivamente la Ordenanza municipal reguladora de la instalación en la vía pública de terrazas y veladores.
- Publicar el texto integro en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, remitiéndose una copia a la Administración de la Comunidad Autónoma Vasca.

Bixente Arrizabalaga zinegotziak obretako batzordeko presidenteari zorionak eman dizkio, batzordeak dokumentazio osoa bidali duelako. Zera adierazi du, onarpenaren kontra bozkatuko duela herritar batek egindako alegazioa aintzat hartuta; izan ere, ordenantza hori lantzeko prozesuan parte hartzeko aukerarik ez duela izan salatu du herritar horrek, besteak beste. Haren ustez, horrek esan nahi du ostalarien iritzia baino ez dutela aintzat hartu, gainerako herritarren iritzia kontuan hartu gabe. Gainera, zera adierazi du, bide publikoan klimatizazio-aparatuen instalazioa debekatzen duen ordenantzaren 12. artikuluarekin ados ez dagoela.

Interviene el concejal Bixente Arrizabalaga quien felicita al presidente de la comisión de obras por la documentación completa remitida de su comisión. Indica que votará en contra de la aprobación dado que un vecino ha planteado una alegación en la que señalaba, entre otras, su imposibilidad de participar en la elaboración de esta ordenanza,…, por lo que no se ha tenido en cuenta la opinión de los vecinos y sólo se ha tenido en cuanta la opinión de los hosteleros; señala además que no está de acuerdo con el art.12 de la ordenanza que prohibe la instalación de aparatos de climatización, en la vía publica.

Zorione Etxezarraga zinegotziak adierazi du herritarraren alegazioa erabatekoa dela, eta horregatik gai hori mahaigaineratzeko eta berraztertzeko eskatu du, jarraian guztiok onartzeko.

Interviene la concejal Zorione Etxezarraga que la alegación del vecino es tan contundente que solicitaría que quedase sobre la mesa y reestudiar el tema , para luego ser aprobado por todos.

Alkateak zera adierazi du, herritarrekin hitz egiteko asmoa dutela, Joseba Barandiaran plazako auzokoekin bereziki, eta, proposamenik sortuz gero, aldaketa zehatzen bat egingo luketela, baina ordenantza hauen onarpena atzeratu gabe.

El alcalde informa que tienen intención de hablar con los vecinos especialmente los de la zona Joseba Barandiarán y si surgen propuestas la intención sería hacer una modificación puntual, pero no tenemos intención de atrasar la aprobación de esta ordenanzas.

Irizpena bozkatu da, eta onartu egin da EHBilduren aldeko 7 botorekin eta kontrako 3 botorekin (2EAJ/PNV,1H1).

Sometida a votación el dictamen es aprobado con 7 votos a favor (EHBildu), 3 en contra (2EAJ/PNV,1H1).

## 7. Biribilgune berriaren kitapena onartzea

## 7. Aprobación de la liquidación de la nueva rotonda

*Imanol Lizarralde zinegotziak bat egin du Osoko Bilkurarekin.

*Se incorpora al Pleno el concejal Imanol Lizarralde.

Obra eta zerbitzuetako batzordearen

Se someta a la aprobación del Pleno el

irizpen bat Osoko Bilkuraren esku utzi da, onar dezan. Irizpenak honako hau proposatzen du:

1.- Obra-zuzendaritzak aurkeztutako likidazioa onartzea, likidazio-txosten xehatua kontuan hartuta. Horren arabera, kontrataren prezioa 463.352,65 € da, eta horri BEZaren % 21 erantsita, egikaritutako obraren guztizko kostua 560.656,86 € da.

2.- Onartutako likidazioari jarraiki, hirugarren ziurtatze-likidazioari dagokion 93.374,71 €-ko zenbatekoa ordaintzea, BEZa barne.

3.- Onartutako ziurtagiria bidaltzea, baita administrazioak egikaritutako obraren fakturak ere (28.273,80 €), Foru Aldundiak udalari adostutako diru-laguntza ordain diezaion.

Irizpena aho batez onartu da.

dictamen de la comisión de obras y servicios por el que propone:

1.- La aprobación de la liquidación presentada por la dirección de obra, teniendo en cuenta su informe de liquidación pormenorizado, que se concreta en 463.352,65€ la suma a precios de contrata, que añadido el importe del 21% de IVA, totaliza el costo de la obra ejecutada en 560.656,86€.

2.- De la liquidación aprobada proceder al abono de 93.374,71€iva incluído, correspondiente a la tercera certificación-liquidación.

3.- Remitir la certificación aprobada , así como las facturas de la obra ejecutada por administración (28.273,80€)para que la Diputación Foral abone al ayuntamiento la subvención convenida.

Se aprueba el dictamen por unanimidad.

**8.- Genozidioa dela-eta Argentinan izapidetzen ari den 4591/10 kereilari dagokionez Goldatu Elkarteak aurkeztutako mozioa.**

Bixente Arrizabalaga eta Imanol Lizarralde zinegotziak bilkura-aretotik irten dira, eta azken horrek zera adierazi du, ez dutela begi onez ikusten mozioak azken orduan sartzea, hori behin eta berriz errepikatzen ari dela eta nolabait moztu beharko litzatekeela, eta horregatik presazko deklarazioaren aurka bozkatuko dutela.

Ramón Aranzasti zinegotzia ere aretotik irten da.

Alkateak mozioa irakurri du, eta mozio horretan honako erabaki hauek hartzeko proposatu da:

**8.- Moción presentada por Goldatu Elkartea en relación a la querella 4591/10 que se está tramitando en Argentina por genocidio.**

Se ausentan de la sala de plenos los concejales Bixente Arrizabalaga e Imanol Lizarralde, quien señala que no están de acuerdo con estas prácticas de meter a última hora mociones, se está repitiendo eso y se debe cortar y nosotros vamos a votar en contra de la declaración de urgencia.

Se ausenta también de la sala el concejal Ramón Aranzasti.

El alcalde da lectura a la moción en la que se propone la adopción de los siguientes acuerdos.

1. Astigarragako Udaletxeak 1931an bide onez burututako Errepublika eta Gobernu espainol, katalan, galego eta euskaldunaren aurka 1936ko uztailean Francok antolatutako altxamendu militar-faxista salatzen du.
2. Astigarragako Udaletxeak gerora ezarritako diktadura erregimena salatzen du, 40 urteetan zehar eragindako triskantza odoltsuagatik justizia soziala aldarrikatzen zutenen aurka eta baita Katalunia, Galizia eta Euskal Herriaren eskubide nazionalak aldarrikatzen zutenen aurka.
3. Astigarragako Udaletxeak golpe militar haren alde eta gerora bere gobernuaren alde egin zuten industria, nekazal eta finantza oligarkiak eta elizaren agintari eta partaideak salatzen ditu.
4. Astigarragako Udaletxeak 1977ko Aministia Legea salatzen du, frankismoaren inpunitatea eragin zuelako eta inongo garbiketarik egin ez zutelako botere estrukturetan, batez ere diktaduraren arlo juridiko eta errepresiboetan (armada, polizia eta guardia zibila).
5. Astigarragako Udaletxeak altxamendu militarragatik, erregimenaren frankistagatik eta Estatu terrorismoagatik errepresaliatuak izan zirenei bere eskubideak bermatzeko ahaleginetan ardura hartuko du, erregimen haren EGIA plazaratzen, bere oinordekoek egiten ari diren historiaren errelato faltsua salatuaz; JUSTIZIA aldarrikatzen, egungo inpunitatea saihestuaz eta frankisten erantzukizuna exijituaz; milako eta milaka biktimentzat ERREPARAZIO duin eta diskriminazio gabe eskatze; eta, azkenik, gizarteak behar dituen

1. El Ayuntamiento de Astigarraga denuncia el levantamiento militar fascista organizado por Franco en julio de 1936 contra la república legalmente constituida en 1931 y los gobiernos español, catalán, gallego y vasco.
2. El Ayuntamiento de Astigarraga denuncia asimismo el régimen dictatorial impuesto a continuación, que trajo consigo una sangrienta represión durante 40 años contra todos aquellos que reclamaban justicia social y contra todos aquellos que exigían el reconocimiento de los derechos nacionales de Cataluña, Galicia y Euskal Herria.
3. El Ayuntamiento de Astigarraga denuncia a las oligarquías industriales, agrícolas y financieras y a los dirigentes e integrantes de la iglesia que apoyaron el golpe militar y al gobierno posteriormente establecido.
4. El Ayuntamiento de Astigarraga denuncia la Ley de Amnistía de 1977, por favorecer la impunidad del franquismo sin realizar limpieza alguna en las estructuras del poder, especialmente en los ámbitos jurídicos y represivos de la dictadura, como el ejército, la policía y la guardia civil.
5. El Ayuntamiento de Astigarraga hará todo lo que esté en sus manos para garantizar los derechos de todos los que fueron represaliados por el levantamiento militar, el régimen franquista y el terrorismo de Estado, haciendo pública toda la VERDAD sobre aquel régimen, y denunciando al mismo tiempo los intentos por falsificar la historia por parte de sus sucesores; reclamando JUSTICIA, para evitar la impunidad actual y exigir la responsabilidad de los franquistas; solicitando una REPARACIÓN digna e igualitaria para

aldaketa sozio-ekonomikoak, juridikoak eta instituzionalak eragiten, ERREPIKA-EZINAREN BERMEA ezartzeko.

6. Ildo honetan, Astigarragako udaletxeak bere laguntza eta atxikimendua ematen dio Argentinako Errepublikan, Buenos Aireseko 1 Epaitegian, 4591/10 kereilari, zein Maria Servini de Cubria Epaileak daraman genozidioaren eta gizateriaren aurkako frankismoaren krimenengatik.
7. Astigarragako Udaletxeak hiritar orori eskatzen dio Kereila honen alde egin dezan, bai kereilatzaile gisa errepresiorik sufritu dutenak, berak edo bere familiakoren batek; edo baita diktaduraren aurka bere salaketa eginaz eta atxikimendu pertsonala sinatuaz.

miles y miles de víctimas; y, por último, impulsando las modificaciones socioeconómicas, jurídicas e institucionales que precise la sociedad para GARANTIZAR que algo así NO PUEDA REPETIRSE en el futuro.

6. En ese sentido, el Ayuntamiento de Astigarraga muestra su apoyo y su adhesión a la querella 4591/10 instruida por la jueza Maria Servini de Cubria en el juzgado número 1 de Buenos Aires, en la República Argentina, por el genocidio y los crímenes contra la humanidad cometidos durante el franquismo.
7. El Ayuntamiento de Astigarraga pide a toda la ciudadanía su adhesión a la mencionada querella, bien como querellantes, en el caso de haber sufrido la represión directamente o a través de un familiar, o si no presentando una denuncia personal contra la dictadura y firmando la correspondiente adhesión.

Mozioa bozkatu da, eta EHBILDUren zinegotziek emandako aldeko 7 botorekin eta Zorione Etxezarragaren abstentzioarekin onetsi da.

Sometida a votación la moción es aprobada con 7 votos a favor de los concejales de EHBildu, y la abstención de Zorione Etxezarraga.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2013ko martxoaren 21ean

**Xabin Olaizola Lasa**
**Idazkaria**